



Aurkezten dugun ikuskizunak emakumea dauka ardatz moduan. Alde batetik ezagutzera eman nahi dugun pertsonaia historikoak bere bizitza emakume borrokara eta borroka sozialetara dedikatu zuelako. Eta bestetik lantaldearen gehiengoak emakumeek osotzen dutelako.

Guda zibila orain dela oso gutxi gertatu zen eta jadanik ahazten hasiak gara. Gero eta gutxiago dira historiaren kapitulu latz hura bizi izan zutenak, eta datozen belaunaldiak horren testigantzarik gabe haziko dira. Guk daukagu beraz kontaketa horren erantzukizuna. Gu gara memoria historikoaren gotorle.

Euskarazko antzerkiak gizartean merezi duen lekua hartzea da gure erronka. Publikoaren fideltasunaren bila, euskarazko antzerki, sakon, poetiko, eder eta dibertigarria da gure apustua.

